



SUKALDEKO ETA GARBIKETAKO LANGILEEN OSASUNA ZAINTZEKO PROTOKOLO ESPEZIFIKOA

2023ko azaroaren 9an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, alderdi sindikalen gehiengoarekin, akordio bat sinatu zuen Hezkuntza Saileko laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuaren pruzedurari buruzkoa, sukaldeko eta garbiketako langileei dagokienez.

Bertan, honako hau adostu zuten:

1. Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak protokolo espezifiko bat garatuko du sukaldeko eta garbiketako langileen osasuna zaintzeko.

2. Protokolo horrek ezarriko du aipatutako kategorietako langileei, bai finkoei, bai plaza hutsa betetzen dutenei, zerbitzu horrek dei egingo diela 60 urte bete ondoren, lan-eremuan haien osasuna babesteko neurriak hartzea egokia den erabakitzeko, prebentziosko neurriak zein neurri aringarriak diren. Hitzordura joatea borondatezkoa izango da.

3. SPRLk zehazten badu pertsona batek egokitzapen espezifikoak behar dituela bere lanpostuari esleitutako funtzioak eta zereginak behar bezala garatzeko, egokitzapen horietan lanaldia herenean murrizteko neurriak sar litezke. Ordu-murrizketa horiek soilik proposatu ahal izango dira kategoria horietan.

Akordio horretan xedatutakoaren arabera, sukaldeko eta garbiketako langileen osasuna zaintzeko jarduera-protokolo hau garatzen da:

LEHENENGOA.- Akordioaren bigarren puntuan xedatutakoari jarraituz, protokolo hau indarrean sartzetik aurrera, Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak deituko ditu 60 urte betetzen dituzten sukaldeko eta garbiketako langile guztiak osun-azterketa egiteko.

Txostenaren emaitza medikoak kasu bakoitzean aplikatu beharreko prebentzio-neurrien egokitasuna islatuko du, langilearen lanbide-kategoriarekin bateragarriak diren eta langileen karga fisikoa arindu dezaketen beste zeregin batzuk zehazteko edo, kasu bakoitzean ezinezkoa bada, egiten ari diren lanen lan-karga murrizteko.

Garbiketako eta sukaldeko 60 urtetik gorako langileek borondatez joan beharko dute hitzordura.

Protokolo honen **I. Eranskin**ean garatzen da jarraitu beharreko eskaera-, izapidetze- eta egokitze-prozedura.



BIGARRENA.- Hirugarren puntuan erabakitakoaren arabera, txosten medikoa egin ondoren laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuak pertsona baten lan-arriskuen prebentziorako neurririk egokiena lanaldia murriztea dela erabakitzen badu, hartu beharreko neurrien artean lan-karga heren batean murrizteko neurria sartu ahal izango da, Hezkuntza Sailak arautzen dituen baldintzetan, langileen ordezkariekin negoziazio-prozesu bat egin ondoren.

HIRUGARRENA.- 60 urtetik gorako langileek % 33tik gorako desgaitasun fisikoa dutela egiaztatzen badute, mediku-azterketan jakinarazi beharko dute, eta egin dakizkiekeen egokitzapen medikoez gain, lan-karga heren batean murriztuko zaie, Hezkuntza Sailak arautzen dituen baldintzetan, langileen ordezkariekin negoziazio-prozesu bat egin ondoren.

LAUGARRENA.- Protokolo hau 2023ko azaroaren 9ko Erabakiari jarraiki arautzen da. Nolanahi ere, Administrazioaren zerbitzura dauden langile guztiek eskubidea dute edozein unetan lanpostuaren balorazio medikoa eskatzeko eta lanpostua egokitzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA.- Gaur egun 60 urte beteta dituzten sukaldeko eta garbiketako lan-kontratuko langileek osasun-azterketa egingo dute 2024ko abenduan hasita, behin medikuek irakasleen EPEko azterketa medikoak amaitzen dituztenean.

UNAI NIETO MARIJUAN

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 6a
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



I. ERANSKINA

ESKAERA

60 urte bete dituzten garbiketako eta sukaldeko langileek edo adina betetzeko hilabeteko epea falta zaienek, osasun-azterketa egiteko eskaera egin ahal izango dute, Hezkuntza Sailaren webgunean gaitutako estekaren bidez, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren atalaren barruan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-kanpaina/>

Eskaera egin ondoren, astebete igaro baino lehen, osasun-azterketa egiteko hitzordua emango zaio dagokion lurraldeko osasun-zerbitzuan hutsunea dagoen egun eta ordurik hurbilenean. Salbuespenez, protokoloa abian jartzen denean, epe hori hilabeteko epera arte luzatuko da, hitzorduak behar bezala izapidetu ahal izateko.

IZAPIDETZEA

Osasun-azterketa egin ondoren, medikuek eta prebentzioko teknikariek erretiroa hartu arte eskatzailearentzat ezarri beharreko neurri zuzentzaileak bidaliko dituzte. Gaixotasuna edo gaitzak areagotzen badira, interesdunak berriro bidali ahal izango du osasun-azterketa egiteko eskaera, eta hartutako neurriak berrikusi egingo dira, eta aldatu edo handitu egingo dira, izandako igoeraren arabera.

Neurri zuzentzaileak osasun-azterketa egin eta gehienez ere hilabeteko epean ezarriko dira. Hilabetea igaro eta neurri zuzentzaileak ezarri ez bada, eskatzaileak lan-karga heren bat murriztu ahal izango du, harik eta neurri zuzentzaile egokiak ezarri arte.